



**2025EKO ABENDUAK 18KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko abenduaren 18an, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Maria Carolina Aguirre Mastrangelo ez da etorri.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

II. 2026KO AURREKONTU EXEKUZIORAKO UDAL ARAUA.-

Jarraian 2026. urterako aurrekontu exekuziorako udal araua aurkeztu da Osoko Bilkurara bere onarpenerako. Udal arau honek Udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. Udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontu espedienteen jasotako dokumentuen artean aurrekontua burutzeko udal araua ere badago.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordean informatuak izan dira.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, aho batez, 2026ko aurrekontu exekuziorako udal araua, onartzea erabaki du.

**III. KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 9 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN
ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.-**

Alkateak Ebazpen bidez onartutako kreditu gehigarri bidezko 9. kreditu aldaketaren berri eman du.



**LAZKAOKO
UDALA**

IV. 2026RAKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO ERABAKIAREN ETA ESPEDIENTEKO AKATSEN ZUZENKETAREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK EZ ONARTZEA.-

Alkateak 2026ko Ordenantza Fiskalen aurka aurkeztutako erreklamazioa azaltzen du.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, aho batez, 2026ko Ordenantza Fiskalak aldatzeko erabakiaren eta espedientearen aurka aurkeztutako erreklamazioak, ez onartzea erabaki du.

V. 2026KO EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALEN ALKADETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.-

Aurreko puntuan 2026rako Ordenantza Fiskalak aldatzeko erabakiaren eta espedientearen aurka aurkeztutako erreklamazioak ez direnez onartu, puntu honetan 2026ko ekitaldirako Ordenantza Fiskalen aldaketa behin betiko onartzea proposatzen da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, aho batez, 2026ko Ordenantza Fiskalen aldaketa behin betiko onartzea erabaki du.

VI. EAJ-PNVREN ADIERAZPENA, ABENDUAREN 7TIK 8RAKO GAUEAN LAZKAON IZANDAKO GERTAKARIEN AURREAN.-

Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) irakurri du:

"Lazkaoko EAJ-PNVk abenduaren 7tik 8rako gauean Lazkaon izandako gertakarien aurrean bere gaitzespen irmoa adierazi nahi du. Ez dugu onartzen herriko hainbat tokitan edukiontziak erretzea eta Ikamaren izenean egindako pintaketak bezalako jokabide bandalikorik.

Lehenik eta behin, gure elkartasuna helarazi nahi diegu lazkaotar guztiei, gertakari hauek herriaren ohiko lasaitasuna eta elkarbizitza kaltetu baitituzte. Ekintza hauek ez dute inola ere herritarren gehiengoaren jarrera islatzen; gehiengo horrek egunero egiten du elkarbizitzaren, errespetuaren eta herri seguruen aldeko apustua.

*Lazkaoko EAJ-PNVk gogorarazi nahi du **indarkeria, mehatxua edo espazio publikoaren suntsiketa ez direla inoiz bide egokiak inolako aldarrikapenerako.** Edozein iritzi edo eskaera beti egin behar da errespetutik, elkarbizketatik eta gure gizarteak partekatzen dituen printzipio demokratikoetatik abiatuta.*

Era berean, konfiantza osoa jartzen dugu instituzioen eta segurtasun-indarren lanaren gain, gertatutakoak argitu eta beharrezko neurriak hartuko direlakoan herritarren segurtasuna zein pertsona guztien eskubideak bermatzeko.



Lazkaoko EAJ-PNVk beste behin ere berretsi nahi du bere konpromisoa elkarbizitzarekin, eta errespetuarekin, askatasunean eta lasaitasunean bizi nahi duen Lazkao baten alde.”

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio kontenedoreak erre eta segituan EAJk argitaratu zuen idatzi bat udal guztiaren izenean, nahiz eta EH Bildurekin ez duten kontatu. Erreketa hauek frontoiko pintadekin ez dutela zerikusiri. Ez dute ulertzen, bi talde politikoek beren idatzia aurkeztu ondoren berriz hona ekartzea.

EH Bilduko zinegotziak aretotik atera dira.

Osoko Bilkurak aho batez (EAJ-PNVko 7 botoak) adierazpena onartu du.

X. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) eskaera bat egin du. Gaur argitaratu da albiste bat web orrian, zein aurrekontu onartu duen esanez. EAJ-PNVren aldeko botoekin eta EH Bilduren aurkako botoekin, baina abstenitu egin ziren. Publikoki zuzentzeko eskatzen da.

Alkatean dio horrela bada zuzenduko dela.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko seiak eta berrogeita hamabostetan eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

